

Larragako

Bigantxa Suharraren Herria



Noiz da ekitaldia?

2025eko uztailaren 25a, ostirala.



Non da ekitaldia?

Nafarroan dagoen

Larragako herrian.

Mapa honetan kolore **gorrian**

Larraga non dagoen ikus dezakezu.



Zer ospatzen da?

Larragako bigantxa suharraren

23. edizioa ospatuko da.

Bigantxa suharra gaztelaniaz

vaca brava da.

2025eko uztailaren 25a, ostirala

Goizeko 8 eta erdietan

Dianak

Alegria Raguesa Musika Bandak
musika joko du Larragako kaleetatik
herria esnatzeko.

Goizeko 9etan

Zekorren entzierroa

Zekorrak zezen gazteak dira.
Entzierroaren ondoren
Macua-Corera ganadutegiko behiak
askatuko dituzte plazan.



Goizeko 9 eta erdietan

Erronda

Larragako Txistulariek
eta Gaztelu Gaiteroek
musika joko dute herrian zehar.



Goizeko 10etan

Artisau-produktuen azoka

Azoka Palanquera kalean hasiko da.

Goizeko 10 eta erdietan

Kontzertua

Alegria Raguesa Musika Bandak kontzertu bat emango du Palanquera kalean.



Eguerdiko 12etan

- **Behiak**

Behiak askatzen dituzten bitartean Alegria Raguesa Musika Bandak kontzertu bat emango du Palanquera kalean.



- **Paseoak zalgurdian**

Berbintzanako Ivan Suescun ganadutegiaren idiek zalgurdi bat tiratuko dute eta bere gainean paseo bat eman alako duzu.

Zalgurdi bat animaliek tiratutako gurdi mota bat da.



Eguerdiko ordu 1etan

- **Haurren transhumantzia**

Trashumantzia animaliak
leku batetik bestera eramatea da.
Victor Navas ganadutegiak
bere behiak
Larragako kaleetan zehar eramango ditu.
Ostatutik aterako dira,
Sor Julia Ruiz kaletik pasako dira
eta Plazaraino iritsiko dira.

- **Jota erronda**

Larragako Jota Eskolako ikasleek
jotak abestuko dituzte
herriko kaleetatik.



Eguerdiko ordu 1 eta erdietan

Ur-behia

Sor Julia Ruiz kalean
ur-behi bat egongo da.

Ur-behia jende artean korrika egiten duen
pertsona bat da.

Pertsona hau behiaren moztarroarekin doa
kaleko pertsonei ura botatzen.



Arratsaldeko 5etan

Patxaran dastaketa

El Reyno Gourmet-ek
patxaran dastaketa antolatu du
Musika Etxean.
Banatuko duen patxarana
Pacharán Navarro enpresarena da.



Dastaketan izena emateko
bidali mezu elektroniko bat
visitas@navarramedia.org helbidera.

Arratsaldeko 6 eta erdietan

Zezen-ikuskizuna

Ikuskizuna Plazan egingo da.
Ikuskizunean honako hau egongo da:



- **Zekorrak.**
Zezen txikiak toreatzen dituzten toreroak dira.
- **Uztaiak.**
Parte hartzen duten pertsonen
behiaren adarretan
eraztun batzuk jartzen saiatzen dira.
- **Ebakinak.**
Parte hartzaileek
behiak haiek harrapatzea
saihestu behar dute.



Arratsaldeko 8etan

- **Erraldoi eta buruhandien kalejira.**

Erraldoi eta Buruhandiek,
Konpartsa eta Gaiteroek
herriko kaleetan barrena
kaleko desfilea egingo dute.



- **Kontzertua**

San Miguel Abesbatzak
kontzertu bat emango du
Kultur Etxean.



Gaueko 9etan

Zezensuzkoa

Haurrentzako Teleklubak
zezensuzko bat egingo du
herriko kaleetatik.



Gaueko 12etan

Behiak

Macua-Corera ganadutegiak
bere behiak Plazan askatuko ditu.


Bitartean,
Forristar Txarangak
musika joko du.



Gaueko ordu 1etan

Erronda

Forristar Txarangak
musika joko du
herriko kaleetatik.



Informazio gehiago behar duzu?

Informazio gehiago behar baduzu
jarri harremanetan honako hauekin:



- **Larragako Udala:**

- Deitu 948 71 10 11 telefono zenbakira.
- Sartu bere web orrialdean: [Hasiera - Ayuntamiento de Larraga](#)

- **Erdialdeko Garapenerako Patzuergoa:**

- Deitu 948 74 07 39 telefono zenbakira.
- Sartu bere web orrian: www.navarramedia.es

- **Erriberriko Turismo Bulegoa:**

Deitu 848 42 32 22 telefono zenbakira.

- **Garesko Turismo Bulegoa:**

- Deitu 948 34 13 01 telefono zenbakira.
- Sartu bere web orrialdean:
[Ayuntamiento de Puente la Reina - Garesko Udala - Otro sitio
realizado con WordPress](#)



Nork antolatzen eta ordaintzen du ekitaldi hau?



Nork laguntzen du ekitaldi hau diruarekin?



Nork laguntzen du ekitaldi honetan?



"© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe. Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>".